

TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO hitza info

Asteazkena, 2011ko martxoaren 2a. VIII. urtea. 2.183. zenbakia. www.tolosaldea.hitza.info

Xabi Fernandez Nabigatzailea

«Munduari buelta gelditu gabe emateko gai garen ikusi nahi dugu»

Ibartarra eta Iker Martinez Hornos lurmuturrean daude Mapfre ontzian munduari buelta ematen; bigarren doaz Virbac Paperec ontzi frantziarraren atzetik

Helmugara iristeko 8.000 bat milia besterik ez zaizkie falta eta «oso pozik» daude, orain artekoa «arazo handirik gabe» egin dutelako, nahiz eta bidea «oso gogorra» izan **6**



Xabi Fernandez hitzetan Virbac ontzia «azkarra da», balna ez Mapfre bezain fidagarria. HITZA

Antzibarrek egingo du Ibarako balioanitzeko eraikina

Behin-behineko esleipena eman dio udalak enpresari; milioi bat eurotan murriztu du hasierako aurrekontua **7**

Ramon Agirre Aktorea

«Askotan ibili gara obraren izenburuak dioen bezala»


'Xentimorik gabe' antzezlanak eskainiko dute etzi 22:30ean Villabonako Gurea antzokian **4**

Tolosako inauterietako
Txupinazoa zuzenean
www.tolosaldea.hitza.info
webgunean



TOLOSALDEKO
ETA LEITZALDEKO hitza info

Osteguna, martxoak 3
12:00etan



Inauterietako
Argazki lehiaketa

- Saria: Denak tabernan 4 pertsonentzako afaria
- Argazkiak nora bidali:
argazkiak@tolosaldeko-hitza.info
harpidedun kodea jarri behar da mezuan,
harpidedun bakoitzak gehienez bi argazki bidali ditzake.
- Noiz bidali: Martxoaren 4tik martxoaren 9a bitartean.
- Sariduna: Martxoak 15eko alean argitaratuko dugu.

Parte hartuko duten argazki guztiak ikusgai izango dira Inauterietan
www.tolosaldea.hitza.info webgunean!

Lehiberrik Hego Ameriketara begira jarri nahi ditu enpresa txiki eta ertainak

Jardunaldia antolatuta dute martxoaren 17an Brasil, Argentina eta Txileko merkatuak aztertzeko

A. Imaz

Hego Ameriketako merkatuan «negozioak egiteko aukerak» ikusten ditu Lehiberrik. Horregatik, Tolosaldeko enpresa txiki eta ertainentzako «jardunaldi berri-maile bat» antolatuta du martxoaren 17an.

Bertan, SPRIko Nazioarteko-tzerako Zuzendaria, Hego Amerikarako arduraduna, eta SPRI Brasil, Argentina eta Txileko ordezkarietako zuzendariak izango dira. Enpresa txiki eta ertainentzako arduraduneri, honela zuzenduta zaizkie Lehiberrik: «Gure ustez, aukera on baten aurrean zaudete, egun erdi batez hausnarketa bat egiteko, ea zuen enpresarentzat herrialde hauek negozioak egiteko aukerarik eskaintzen ote diuzeten».

Era berean, Brasilgo merkatuari buruzko zehaztasun gehiago nahi duenak, aukera izango du datozen hilabeteetan Lehiberrik eta Tolosaldea Garatzenek elkarlanean antolatuko duten «sektoreen arteko misio komertzialean parte hartzeko». Gisa honetara egiten den bigarren misioa izango dela ere azaldu dute, «Tolosaldea Garatzenek subentzionatuta, 2010eko irailean Hego Koreara eginiko misio arrakastatsuen ondoren».

Izena emateko aukera

Jardunaldian izena emateko edota informazio gehigarria eskatu eta eskuratzeko Tolosaldea Garatzenekin jarri behar da harremanetan, Enpresa Sailarekin hain zuzen ere. Bertako telefono zenbakia ondorengoa da: 943 65 45 01. Emailaz ere egin daiteke, enpresa@tolosaldea.net era idatziz.

Urkizu, Bedaio eta Aldabako emakumeek euren eguna ospatuko dute

Erredakzioa

Urkizu, Bedaio eta Aldabako emakumeek txangoa antolatuta dute Bilbora, Emakumeen Eguna ospatu asmoz. Martxoaren 19an, larunbata, 10:00etan dute hitzordua Benta Haundin. Goizean Guggenheim ikusiko dute, bertan gainera, Erdi Aroko emakumeek izan zuten rol aldaketaren erakusketa dago ikusgai. Museo-ko jatetxean bazkaldu eta arratsaldea Alde Zaharrean pasako dute. Landa Eremuko emakumeek azken urte hauetan antolatzen duten egun hau, elkarren arteko harremanak estutzeko eta egun polit bat pasatzeko aukera izaten da. Auzotarrek beraien elkartean eman beharko dute izena martxoaren 11 baino lehen, edota auzoetako ordezkarien telefonora deituz.

Inauterietako balkoi politenak 100 euroko saria jasoko du Amarotzen

Erredakzioa

Tolosako Inauterietan Balkoien VI. Lehiaketa antolatuta dute Amarotzeko Auzo Elkarteko kideek. Bertan parte hartzeko, ondorengo baldintza bete behar da: «Balkoia Ostiral Meherako Inauterietako apaingarriekin edukitzea».

Balkoi politena duenari 100 euroko saria emango diote eta bigarrenari 75ekoa. Hirugarrenak 50 jasoko ditu. Aipamen berezia ere egongo da, fatxada koloretsuenari, hain zuzen ere. Epaimahaia Juan Bautista Arantzabe, Matek, Maite Sanchez eta Guillermo Benito-Huarterk osatuko dute.

Usabal kiroldegia igande arratsaldeetan aisialdirako aukera bilakatu da

Martxoaren 27an eta apirilaren 17an gaztelu puzgarriak jarriko dituzte haurrentzat goiko kantxan

Asier Imaz

Usabal kiroldegia igande arratsaldeetan, 14:00etatik 20:00etara, irekitzea erabaki zuen Tolosako Udalak urtarrilaren 16an. Proba moduan hasi ziren eta esperientziak 13 igande iraungo ditu. Zaz-

pi igaro dira eta jadanik lehen bala-lantzea plazaratu dute udaletik: «Bi hilabete igaro dira eta esan liteke helburua bete dela. Hasieran jarritako zenbakiak gaintu egin baitira».

Ondorio nagusiak

Probarekin hasi zirenean helburu batzuk jarri zituen Tolosako Udalak. Besteak beste, «Tolosaren aisialdi aukerak zabaltzea; igande goizetako erabiltzaile kopuru handia egun guztian zehar banatzea eta 300 erabiltzaile inguru elkartzea arratsaldeetan, fami-

lei eta 12-18 urteko gazteei garrantzia emanaz».

Zazpi aste igaro diren honetan, lau ondorio atera dituzte: «Eguraldiak eragina duela, familia ugari joan direla, igerilekua eta kanpokozelai txikia direla gehien erabiltzen diren zerbitzuak eta ordutegi arrakastatsua 17:00etatik 19:00etarako dela».

Aurrera begira, martxoaren 27an eta apirilaren 17an, haurrentzat gaztelu puzgarriak jarriko dituztela iragarri dute udaletik. Hauek, Usabal kiroldegiko goiko kantxan kokatuko dituzte.

Zezen-plazara sartzeko azken sarrerak gaur jarriko dituzte salgai

Asier Imaz

Zezen-plazarako sarreraren salmenta «martxa onean» doala esan dute udaletik. Leidor areto-ko leihatilan sarrerak erosteko azken aukera gaurkoa izango da. 09:00etatik 13:00etara eta 16:00etatik 20:00etara egongo dira zabalik. Ikuskizun egunetan ere txartelak salgai egongo dira zezen-plazan, %10a egun horietarako gordetzea erabaki baitute.

Ostiral Mehe egunean eta Asteartita goizean doan izango da Zezen plazarako sarbidea eta bertan herritarrek eskainiko duten ikuskizuna.

Aurreko egunetan bezala, gaur saltzen jarriko diren sarrerak ondorengo prezioa edukiko dute: Tendidorakoak, 16 urtetik beharagoentzat euro bat, eta 16 urtetik gorakoentzat bi euro, harmailarako bi euro eta palkorako bi euro t'ardi.

Txupinazoa zuzenean udalaren webgunean

Bestalde, pasa den urtean egin zen bezala, aurten ere, Tolosako Inauterien hasiera iragartzen duen txupinazoa zuzenean jarraitzeko aukera izango da Tolosako Udalaren web orrian.

Bihar, Ostegun Gizona, www.tolosakoudala.net orria, 11:45ean hasiko da Plaza Zaharrean gertatzen denaren zuzeneko jarraipena ematen.

Gutunak

Inauterietan, aldarrikapen politikoak eta adierazpen askatasuna

Ezker abertzaleak historikoki *Jaiak bai, borroka ere bai* leloari jarraitu izan dio, herriko ospakizunetan aldarrikapen politikoei bide emanez. Ireki den fase politikoa berrian, beste hainbeste. Prozesu demokratikoa, herritarren hitza eta erabakia, eraldaketa sozial eta politikoa, presoen eskubideak, Pello Odriozolaren bahiketa, giza eskubide guztien errespetua, langile borrokak... isla izan behar dute festa gunean, erreallitate bat diren heinean. Baina Jokin Bildarratz buru duen Tolosako Udalariek ez zaio ondo iruditzen antza. Rodolfo Ares, Gerra Kontseilariarekin egin zuen agerraldi hura buruan dugu oraindik: «Kartelik hobereina inprimatzen ez dena da eta pankartarik ho-


berena ipintzen ez dena». Nekez aurkitu liteke faxismotik gertuago dagoen esamolderik. Zarpalketa jasatea nahikoa ez eta keaxteko eskubidea kendu nahi zaio langile herriari. Komunibide ia denetan atek itxita, kalea baino ez zaigu geratzen, eta hortik ere desagertuarazi nahi zaigu. Gogoratu Inauterietan egunero-egunero kentzen dutela propaganda politikoa (tematiak garenez, egunero-egunero berritzen baititugu). Aitzakia ere polita da gero: kaleak garbi mantentzea. Logika horri jarraituz, Tolosako Udala antolatuta duen The Wailers musika talde ezaguna iragartzeko kartelak ez al lirarteke kendu behar? Alderantziz, tamaina polita duten kartel horiek eskualde-

ko herrietan ere itsatsi dira. Ez gara erotuko orain. Kontzertuak edo beste edozein ikuskizun berri ematen duten propagandak kalean egon behar du... propaganda politikoak ere bai!!

Jokin Bildarratzi deialdi zuzena beraz: propaganda politikoa kentzeko agindurik ez eman. Are gutxiago udal langileak horretara bidaliz, polizi lana egitea behartuz.

Herritarrek, Inauterietan parte hartu eta ondo pasatzera deitzen ditugu, herri honen arazoez ahaztu gabe, alaitasunez eta lagun artean egun hauek konpartitzera. Inauteri hauetan, errespetatu Adierazpen Askatasuna!

■ **Tolosaldeko ezker abertzalea.**



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

Plaza Berriko hamabost etxe esleituko ditu udalak

Hilaren 18a baino lehen eman beharko da izena Etxebizitza Tasatuen Erregistroan, zozketan parte hartzeko

Itzea Urkizu

Tolosako Udalak Plaza Berriko bigarren zenbakiko hamabost etxebizitza tasatu esleituko ditu, eta horretarako beharrezkoak diren oinarriak onartu dituzte jada. Aipaturiko etxebizitza hauen zozketan parte hartzeko izen-emate epea zabalik dago, eta beharrezkoak diren eskaera orriak eta bete beharreko oinarriak udal-txeko erregistroan nahiz udalaren webgunean lor daitezke

Etxebizitza hauen esleipenean parte hartu ahal izateko, martxoaren 18a baino lehen Etxebizitza Tasatuen Erregistroan izena eman beharko dute interesa dutenek, eta euren diru-sarrerak ere kontuan izango dituzte. Gutxienez 9.000 eta gehienez 52.500 eurokoak izan beharko dute diru-sarrerak. Azkenik, zozketa egiterakoan hiru zerrenda izango dira, etxebizitzetan bizitzera sartuko diren lagun kopuruaren arabera: lau edo gehiagoko kideen elkarbizitza unitateak, hiru kideko elkarbizitza unitateak eta bi gelako etxebizitzak.

Bi etxebizitza desberdin

Hamabost etxebizitza hauetatik hamaika lehenengo, bigarren eta hirugarren soilairukoak dira, eta



Plaza Berrian dago zozketatuko dituzten hamabost etxebizitzaren eraikina. A. IMAZ

honakoa da banaketa: jangela-egongela, bi logela eta bainugela bat. Beste lau etxebizitzek bi soilairu izango dituzte, duplex eraikoak izango dira, eta aurrekoak baino handixeagoak: sukaldea, jangela-egongela, hiru logela eta

bi bainugela izango dituzte. Etxebizitza guztiek, gainera, trasteleku bat izango dute eraikinaren behealdean. Apartamentuek prezio nahiz neurri desberdinak izango dituzte, banaketa bera bezala, eta metro kopuruaren arabe-

rako prezioa izango dute. Horrela beraz, etxerik txikienak 47,50 metro karratuko azaleradunak izango dira 142.120 euroko prezioarekin, eta handienek aldiz, 82,40 metro karratuko azalera izango dute, eta 160.990 euroko prezioa.

Ekitaldiz betea dator martxoko egitaraua

Kontzertuez gain, erakusketa, antzerki nahiz hitzaldiak izango dira herriko txoko desberdinetan

Itzea Urkizu

Martxoan sartu berri garen honetan Tolosako ekitaldirik jendetsu nahiz nabarmenenak Inauteriak izango diren arren, hilabetea ekitaldiz betea dator.

Leidor aretoan, ohiko zine egitarauen berriki ospatu dituzten Goya nahiz Oscar sarietan arrakasta lortu duten zenbait filmez gain, euskarazko pelikulak eta haurrei zuzendurikoak ere ikusgai izango dira. Gainera, aipatzeak da Extremadurako Bebe abeslariak gurera egingo duen bisita. Era berean, antzerkiak ere izango du lekurik Tolosan, eta besteak beste *Crimen perfecto* antzezlanak ikusgai izango da, Elena Furiase eta Jorge Sanz aktoreak protagonista nagusi dituela.

Gaztetxoentzat ere izango da hamaika ekitaldi bai Topic-en, baita Leidorren ere, Pirritx, Porrotx eta Marimototsen ikuskizun berria kasu.

Azkenik, erakusketez gozatu nahi duenak Aranburu jauregia izango du, eta musika izango da nagusi Bonberenean.

↓ Martxoko egitaraua

ARANBURU JAUREGIA

- **Martxoaren 20ra bitarte.** *Jeiki!* Jeiki! erakusketa.
- **Martxoaren 25etik aurrera.** Naroa Armendarizen pintura erakusketa.

TOPIC

- **Martxoaren 13ra bitarte.** *Wang Golek* Indonesiako txotxongiloen erakusketa.
- **Martxoaren 19a.** Behi Bi 's-en eskutik, *Paperezko istorioa*, 18:00etan.
- **Martxoaren 25a.** Joseba Tapiaren kantaldia, *Euskaraenea* ekimenaren baitan, 20:30etan.
- **Martxoaren 26a.** Irango Yase Tamam-en *La Tierra y el Universo*, 20:00etan.
- **Martxotik ekainera.** *Corolorin*.

GKO GALLERY

- **Apirilaren 2ra bitarte.** Bartzelonako *Mixmedia* erakusketa.

KULTUR ETXEA

- **Martxoaren 10etik aurrera.** Kutxa ikasgeletako hitzaldia, 18:00-19:00. *Arqueologia del Proximo Oriente*.

- **Martxoaren 21a.** Odolemailen hileroko odol aterateak, 18:30etik aurrera.
- **Martxoaren 22a.** Galtzuauandik antolatuta, Koldo Izagirreran hitzaldia, 19:30etan, bere azken liburuen inguruan: *Autopsiarako frogak*. *Artseniko aztarnak gure hizkuntzan*.
- **Martxoaren 24a.** Kutxa ikasgeletako hitzaldia, 19:30etan. *Excavaciones de Intxury Basa-gain, castros de la edad del hierro*.
- **Martxoaren 31.** Korrika 17ko dokumentalaren proiektzioa, 19:00etan, AEK eta *Euskaraenearen* eskutik.

LEIDOR ARETOA

- **Martxoaren 4a.** Arpegi taldearen Ostiral Meheko jaialdia, 22:45ean.
- **Martxoaren 10a.** Zinea. *Poesia* filma 19:15ean eta 21:45ean.
- **Martxoaren 11.** Bebe-ren kontzertua, 20:30ean.
- **Martxoaren 12a.** Zinea. *Blog* pelikula 19:30etan eta 20:30etan.
- **Martxoaren 13a.** Zinea. *El pequeño Rey Macius* 17:00etan, eta *Tambien la lluvia* 19:30etan eta 22:00etan.
- **Martxoaren 14a.** Zinea. *Tam-*

- bien la lluvia* pelikula 20:30etik aurrera.
- **Martxoaren 17a.** Zinea. *¿Que fue de Baby Jane?*, 19:15ean eta 22:45ean.
- **Martxoaren 18a.** Txalo produktzioen eskutik, *Crimen perfecto* antzezlanak, 20:30etan.
- **Martxoaren 19a.** Zinea. *Jainkoez eta gizakiez* 19:30etan eta *Mas alla de la vida* 22:30etan.
- **Martxoaren 20a.** Zinea. *Mas alla de la vida* 19:30etan eta 22:00etan.
- **Martxoaren 21a.** Zinea. *Jainkoez eta gizakiez* filma 20:30etan.
- **Martxoaren 24a.** Zinea. *De dioses y hombres* pelikula 19:15ean eta 21:45ean.
- **Martxoaren 25a.** Ikastetxentzat Zinea Euskaraz-en baitan, *Nanny 2* filma, 09:00etan.
- **Martxoaren 26a.** Pirritx, Porrotx eta Marimototsen *Ongi etorri Pupu eta Lore* ikuskizuna, 16:30etan eta 19:00etan.
- **Martxoaren 26a.** Zinea. *El discurso del Rey* 22:30etan.
- **Martxoaren 27a.** Zinea. *El discurso del Rey* filma 19:30etan eta 22:00etan.
- **Martxoaren 28a.** Ikastetxentzat proiektzioa osasun hezikuntzaren inguruan. *Bon Appetit* filma 10:00etan.

- **Martxoaren 28a.** Zinea. *El discurso del Rey* filma 20:30etan.
- **Martxoaren 29a.** Ikastetxentzat Zinea Euskaraz-en baitan, *Txori urdin* filma, 09:00etan.

BESTELAKOAK

- **Martxoaren 3tik 8ra.** Inauteriak.
- **Martxoaren 11.** Hezikuntza eta heziketaren inguruko jardunaldiak, Errota haur liburutegian, 17:30etan.
- **Martxoaren 17a.** Ipuin kontaketa Haur liburutegian, 18:00etan.
- **Martxoaren 18a.** AurrezAurre jardunaldien baitan performancea Kikara tabernan, 21:30etan.
- **Martxoaren 18tik 20ra.** Gipuzkoa Encounter.
- **Martxoaren 28a.** Korrika 17ren aurkezpena Lizardi elkartean, 19:30etan.
- **Martxoaren 19tik apirilaren 8ra.** Ahoz Ahoz jardunaldiak.
- **Martxoaren 18, 19 eta 26a.** Bonberenean kontzertuak: Bonberrokan eta Yakuzi batetik, Vendetta bestetik, eta Ama Say eta Mursego, azkenik.
- **Martxoaren 26a.** Tolosa Kantari 12:00etan.

Ramon Agirre >
Aktorea

Ostiralean 22:30ean, Inazio Tolosarekin batera 'Xentimorik gabe' antzezlanaren aurkeztuko du Gurea zine aretoan.

«Antzerkia umorez eta musikaz zipriztindua dago»

Eneritz Maiz Amasa-Villabona

Ramon Agirre eta Inazio Tolosa, Ray eta Nick pertsonaien paperean sartuta, *Xentimorik gabe* lana aurkeztzen ari dira azken hilabeteetan. Tolosaldera ostiralean iritsiko dira eta Villabonako Gurea antzokian eskainiko dute ordubete irauten duen lana. Sarrerak 8 euro balio du eta leihatilan erosi beharko dira.

Zer kontatuko duzue?

Bi artista gara. Hogei bat urtez munduan zehar ibiliak eta dozer gauzarekin ausartzen garenak. Kontinente guztietan ibili gara musika jotzen, kantatzen eta dantzatzen, denetik egiten. Gure abentura, ordena handiegirik gabe eta denboran eta kontinente batetik bestera salto eginez kontatzen dugu. Garai hartako abestien zatiak ere abestuko ditugu, gure bertso eta plagioak eginez.

Eta zer dela eta jarri diozue 'Xentimorik gabe' izena?

Horrelaxe ibili garela beti. Askotan lan bila, fama ere ezagutu

dugu, baina beste batzuetan, xentimorik gabe. Abesti ezagun bat ere bada. Abesti zaharrak euskal tradizioetik jaso eta hemengo erreferentziak erabiltzea ere gustuko dugu. Gure ondareko abesti zaharrak berreskuratuz abestea eta gure irudian barneratzea da gure nahia. Euskaldun atera ginan eta mundu guztia zeharkatu dugu, baina, beti euskaldun moduan ibili gara eta euskaldun izaten itzuli gara.

Abestu ere egiten duzue.

Bai. Abestien zati txikiak abesten ditugu. Eta herriminak jota berriro ere Euskal Herrira itzuli gara. Lanerako gogoz etorri gara. Beste irakurketa posible bat ere bada. Fikzioan sartuz, ez dakizu tipo hauek burutik oso sano ote dauden edo terapia batean... atea zabalik uzten dugu. Umorea eta musika ditu ardatz.

Eskualdean lehen aldiz izango zarete lanhonekin. Zer nolako erantzuna ari zarete izaten?

Bitxia da bai, Bilbon pare bat aldez egin dugu eta inguru honetara



HITZA

oraindik ez gara iritsi. Erantzun oso ona izaten ari da, polita. Jendeak oso ondo pasatzen du eta guk ere bai. Jendeak barre dezentegiten du. Eta musika aldetik ere, antzezlanak bere maila baduela uste dut.

Zuzeneko musikaz gozatzeko aukera izango da orduan.

Bai, musika presente dago momentu guztian. Gu musikari bezala ibili gara mundu guztian. Inazio Tolosak tronpeta, klarineta, saxoa... guztiak jotzen ditu. Bertuteduna dela esango nuke. Eta nik gitarra zintzilik edukitzen dut momentu guztian. Biok abesten dugu. Zati txikiak izango dira, kontakizunean itsatsita

daude eta ez dugu aitzakia handirik behar kantuan hasteko. Musika eta umorez zipriztindua dago kontakizun guztia.

Zer nolako laguna da Inazio Tolosa?

Aspaldi lan egindakoak gara eta baguen elkarrekin lan egiteko gogo. Oso ondo moldatzen gara. Musikazaleak gara eta gustu bertsukoak ditugu. Oso malguta da.

Zein da euskal antzerkiaren egoera?

Denok dakigu ez direla garai onak baina, esnatu egin behar dugu. Kalitatea eta maila ona lortu direla uste dut baina batzuetan lo hartu dugula uste dut. Pixka bat gehiago mugitu beharrean gaude. Eta jendea desatzen da goela uste dut.

Gutuna



Ostegun gizona

Urtero bezala, Inauteriak gertu ditugu eta Jesusen Bihotza Ikastolako ikasle, irakasle eta gurusoak jo eta ke ari gara Ostegun Gizeneko (Villabonan) eta Ostiral Mehearen (Zizurkilen) festak antolatzen.

Makina bat aldiz entseatu dugu, emanaldia primeran ateradadin. Aurten Villabonako Ikastolak Tunoz mozorrotzea erabaki dugu. Zizurkilgo ikastolak berriz Indioz mozorrotuko gara.

Dakizuenez, festa hauek Villabona eta Zizurkilgo Udalek antolatzen dituzte herriko ikastetxeekin batera. Ostegun Gizenean, Villabonako Udaletxe aurreko emanaldiarekin emango diogu hasiera festari. Ondoren, herrian zehar abiatuko gara festa eta umore ona zabalduz.

Ostirala Meharean ordea, Zizurkilen, desfilea izango da lehendabizi eta bukatzeko, emanaldia plazan.

Ilusio handiarekin prestatutako jaia denez, herritar guztiak gonbidatu nahi ditugu desfilean parte hartzera. Ziur denok primeran pasako dugula!

■ **Arantxa Arin**, Jesusen Bihotza Ikastola, Villabona-Zizurkil.

17. Korrikako jantziak

Euskalherrikoplaza.com-en
aurkituko dituzu:

www.euskalherriko
plaza.com

Irudia > Amasa-Villabona



EUSKAL BAKARRIZKETA EGILE ONENAK

Amasa-Villabonako Udalak eta Euskal Herriko Antzerkizale elkarteak antolatutako II. Euskarazko Bakarrizketa lehiaketa amaitu da. Bost emakume aritu ziren nor baino nor lehia eta lehen saria, Erika Olaizola eskuratu zuen. Bigarren pos-

tuan Nahia Hualde sailkatu zen eta publikoaren saria berriz, bigarren urtez jarraian, Ione Gorostartzu berastegiarrak eskuratu zuen. Gurea Zine aretoa guztiz betetzera lortu zuten bost bakarrizketa egileek. HITZA

525 mila euroko aurrekontua onartu du udalak 2011rako



Udaletxe berriaren eraikuntza lanak amaitzen ari dira. Maileguetako bat obra ordaintzeko da. HITZA

Inbertsioetarako hiru mila euro ditu aurten udalak eta Ostatuko argiteriaren potentzia aldatzeko erabili da

Imanol Garcia Ikaztegieta

Ikaztegieta Udalak 2011ko aurrekontua onartu du eta Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean azaldu berri denez, behin betiko onarpena jaso du. Aurrekontua zehazki 525.936,13 eurokoa da. Udalak azaldu duenez, «azken lau urteetako ildo berari jarraituz, sarrera oso gutxi ditugu eta gastu arruntek ia bere horretan jarraitzen dute».

Inbertsioetako aurten hiru mila euro izango ditu udalak. «Ostatuak urte hauetan eman digun arazoa konpontzeko erabili da, hau da, argiteriaren potentzia behar bezala jartzeko».

Ikaztegieta ur kontsurtzioan sartu denetik aurrezrutakoa ere aipatu du udalak. «Kontsumitzen duguna baino ez dugu ordaintzen», diote bertatik. «Honela udalak dirua aurrezten du. 17.000 euro

↓ 2011ko aurrekontua

Kapitulua	Euro
Pertsonal gastuak	187.989
Ondasun arruntan erosketak eta zerbitzuak	224.071
Finantza gastuak	13.701
Transferentzia arruntak	27.787
Inbertsio errealak	3.000
Finantza pasiboak	69.385
Guztira	525.936

ordaintzetik 2.000 euro gastatzera pasatu gara».

Foru Aldunditik 321.539 euro jasoko dituztela aurreikusten dute udaletik. Kopuru hori, baina, aldatu daiteke. «Azken urteetan beti beherantz egin du. Iaz ere, jaso behar genuena baino 2.380,39 euro gutxiago izan ziren», adierazi dute. Maileguei dagokionez, egun lau ari dira ordaintzen. Guztira 43.966,52 euro dira amortizazioak eta 13.701,12 euro interesak. Maileguetako bat udaletxe berria ordaintzeko da.

Euskara ikasteko laguntza

Azken osoko bilkuran, aurrekontua onartzeaz gain, beste zenbait gai izan zituzten hizpide. Horieta-

ko bat euskara ikasteko laguntza izan zen. Zehazki, laguntza horren inguruko ordenantza berria onartu du udalak, UEMArekin batera prestatu duena. Iaz arte ez zen eskaerarik jaso, baina aurten agertu da laguntza horietan interesa duenik. «Arlo horretan ere ezin izan dugu diru askorik jarri», azaldu dute udaletik. «Baina arazoak ekiditeko ordenantza berria dugu. Udalerrri euskalduna izanik gure esku ere badago euskara ikasi nahi dutenei laguntzatxoa ematea». Oinarriak eskuratu nahi dituenak udaletxean jaso ditzake.

Beste gai bat hiletazibilena izan da. Udalak ordenantza onartu du hileta edo omenaldi zibilak arautzeko. Udaletxe berrian behe solairuan egongo den gela balioaniztunean egin ahaliko dira. Besteak beste, ospakizuna egiteko balmea eskatu beharko da udaletxean.

Ostatu zerbitzuaren lehiaketa

Udalak lehiaketara ateratu zuten Ostatu taberna-jatetxearen zerbitzua. Lehiaketan parte hartu nahi dutenek beharrezko dokumentazioa aurkezteko azken eguna hilaren 7a dute.

Finalerdietarako txartelaren bila doa Aurrera Saiaz

Berria Txapelketako final laurdenak jokatuko ditu etzi eskualdeko elkarteak Doneztebeko Errekaren aurka

I. Garcia

Berria Txapelketako final laurdenak jokatuko ditu Aurrera Saiaz elkarteak Beotibarren, etzi, 19:30ean. Doneztebeko Erreka elkarteak izango du aurkari. Luis Galarraga Aurrera Saiazeko arduradunak dioenez, neurketarako «ez dago faboritorik».

Kadete mailan Mujika eta Iruetagoiena ariko dira Aurrera Saiazetik. Aurkariak Telletxea eta Elizalde izango dira. Jubenile-

tan Labaka-Elustondok jokatuko dute Maia eta Lasaren aurka. Nagusien mailan Onsalo eta Telletxea ariko dira Esain eta Gorriti profesional ohien aurka.

Galarragak zehaztu duenez, kadetetan faborito bezala aterako dira. Jubeniletan Arratibelen ordezkariak du Elustondok Aurrera Saiazetik. Maila horretan Errekakoek aukera gehiago izango dituzte irabazteko. Nagusietan ez du ikusten Galarragak faborito argirik: «Nahiko paretsu ibiliko dira». Maila horretan ikusteko dago Telletxea Euskal Herriko Txapelketan izan zuen lesiotik osatuko den.

Ostiral Mehean jokatuak ez duela neurkit baldintzatuko dio Galarragak eta Beotibarrera pilotazaleak joango direla espero du.

Talai dantzaren inguruko bilera egingo dute gaur

Erredakzioa Amezketza

Talai dantzan parte hartu nahi dutenek bilera izango dute gaur, 19:00etan, gazte taldeko lokalean. Bilera ekitaldia antolatzeko eta entseguak egiteko izango da.

Datorren igandean eta astele-

henean egingo dituzte saioak. Igandean Ugartetik herrigunera-ko ibilbidea egingo dute, Sunbilarako auzotik ere igaroz. Astelehenean herriko beste baserrietan eta Bedaiokoetan dantzatuko dute. Antolatzaileek herriarrak animatzen dituzte parte hartzera.

Irudia Amasa-Villabona



INAUTERI GIROA NABARITZEN DA FLEMING-EN

Amasa-Villabonako Fleming ikastetxera heldu dira Inauteriak. Izan ere, eskola dagoeneko apaindu dute. Eta, noski, Xaxi ere mozarrotu da festetarako. Eskolatik azaldu dutenez, «pailazoek alaitu eta koloreztatuko dituzte herriko kaleak Ostegun Gizenean». HITZA

Hartu aisia BERRIekin

Egin harpidedun eta jaso 2 lagunentzako ERLAXATZEKO BONUA OPARI




EZAUGARRIAK:

- Talasoterapia zirkuitua
- Erlaxatzeko masajea
- Igande arratsaldetik ostiral eguerdira erabil daiteke

Harremanetarako:

943-30 43 45 • harpidetza@berria.info

Aukera ezazu. **BIZI euskaraz** **berria**

Xabi Fernandez o Nabigatzailea

Xabi Fernandez nabigatzailea Hornos lurmutur inguruan dabil Mapfre ontziarekin. Barcelona Word Racen parte hartzen ari da.

«Oso gogorra den arren, fisikoki eta mentalki ondo gaude»

Maier Ugartemendia Ibarra

Xabi Fernandez munduari buelta ematen ari da Iker Martinezekin batera, Mapfre ontzian. Jada ibilbidearen erdia egin dute eta bigarren postuan daude, lehenengo postuan dagoen Virbac Paperec ontzitik 80 milia ingurura. Tarte hau ez da handia, helmugara iristeko 8.000 milia besterik falta ez direnean.

Amerikako Hornos lurmuturraren inguruan dabilta orain, eta datozen egunetan zerura begira egongo dira, bi ekaitz gogorren artean baitaude. Beraren egoeran ez da erraza galdera hauek erantzuteko denbora hartzea, baina, Xabi Fernandezek erantzun ditu eta beraien egoeraren berri eman dio HITZari.

Jada lasterketaren erdia egin duzue. Zer balorazio egiten duzu?

Esaten duzun bezala, estropada erdia egin dugu jada. Zeelanda berria pasa genuen orain dela egun eta erdi. Balorazioa ezin hobea da. Egia esanda, atera aurretik hemen egongo ginela esan izan baliagute ez genuke sinistuko seguruen. Oso pozik gaude. Oso gogorra izaten ari da, luzea egiten ari da eta lan asko egin beharra dago. Honaino arazo handirik gabe iritsi gara eta oso pozik gaude. Lehenengo postuan dagoen ontzia bagenekien oso fuertea dala eta hala ere, arazo batzuk izaten ari da, eta oso urruti ere ez dago. Beraz, balorazioa oso ona da, lehenengotik ez oso urruti eta atzekotik distantzia dezenterekin.

Zer moduz zaude fisikoki eta mentalki? Lasterketa gogorra izango da zuentzat bizentzetan ezta?

Fisikoki eta mentalki ondo gaude. Ez dugu lesiorik izan ez batak eta ez besteak. Ontzi hauetan arazoetako bat izaten da lesio bat izatea. Olaturen batek edo itsasoak bultzata golpe fuerteren bat hartzea. Alde horretatik ez dugu arazorik izan. Tripetatik ere ez dugu gaixotasunik izan, eta ea horrela jarraitzen dugun. Mentalki, lehen egin dugun balorazioarekin, gauza ondo joanda, errazagoa da.

Egia esanda, nahiz eta, berrogeita hamar egunetik gora daramatzagun uretan, egunak nahiko azkar doaz. Jada pazifikoan sartuta gaude eta hori aurrerapauso bat da. Zeelanda Berria pasata etxera bidean gaudela iruditzen zaigu. Alde horretatik ondo gaude eta ea horrela jarraitzen dugun. Horrelako estropadetan mentalki huts egiten hasten bazara, oso luzea egin daiteke.

Zer moduz daukazue ontzia? Izan al duzue arazo bereziren bat?

Ontzia ondo dago. Orain dela hamabost bat egun arazo batzuk izan genituen, pieza bat puskatu baikeuen. Orduan, gelditu ala ez duda izan genuen, baina, hortza

«Gure ontzia oso ondo dago eta ez dauka mantsoagoak egiten gaituen arazorik»

«Virbac Paperec ontzia azkarra eta berria da, baina ez da fidagarria»

konpondu eta gero animatu ginen. Eta, gero beste matxura txiki batzuk izan genituen, baina denak konpondu ahal izan ditugu. Ontzia %100ean joateko ez dago oso urruti eta pozik gaude. Oso fidagarria da, eta hori da alde ona. Atera aurretik bi ontzi berri zeudela eta beraiek abantaila izan zezaketela esaten zen. Bi ontzi horietako bat Foncia zen eta erretiratu dago, eta bestea lehenengo postuan doan Virbac ontzia da. Alde batetik egia da azkarragoak direla, baina bestetik ez dira hain fidagarriak. Bat erretiratu dago eta besteak bi aldiz geratu behar izan du. Eta ez dago hain urruti. Espero dut arazo gehiago ez edukitzea, baina ez daukate guk ontzian daukagun konfidantza bera. Edozein gauza gerta liteke. Gure ontzia oso ondo dago eta oraintxe bertan ez daukagu mantsoagoak egiten gaituen arazorik. **Estrella Damm ontzia ere atzetik**



HITZA

izan duzue orain dela gutxi arte, baina izan dituzten arazoak direla eta beraiekiko alde handia duzue orain.

Estrella Dammekin izugarriko borroka izan genuen Indiko gutzian zehar, Hego Afrikatik ia Zeelanda Berriraino. Gero guk arazoren bat izan genuen eta asko gerturatu ziren. Gero beraiek arazo batzuk izan dituzte eta pixka bat urrutiratu egin gara. Gainera, oso ondo ezagutzen ditugu bai Pepe eta baita Alex ere, eta borroka oso polita izan da. Baina, atzo gauean (lehenengo astean) beste arazo serio bat dela eta gelditu behar zutela jakin genuen. Mastineko kablea puskatu dute eta masta puskatu aurretik gelditu egin dira Wellingtonen. Alde batetik pena pixka bat ematen digu, zeren orain atzean geldituko dira eta aurrekoarekin nahikoa borroka izango dugun arren, nik uste guretzat hobea zela gertu egotea.

Grupo Bel ontzia ere nahiko gertu izan duzue lasterketan zehar, baina honek ere gelditu beharra izan du.

Grupo Belek aspaldi esan zuen gelditu egin behar zutela, bela batzuk puskatuta dituelako. Ez dakit zenbat puskatuko zituen, baina pixka bat arraroa iruditzen zait horregatik gelditzea. Horrela erabaki dute eta orain atzean gelditu dira. Batera gelditu dira Wellingtonen Estrella Dam eta Grupo Bel, eta pazifikoan nahikoa lan izango dute lehenengo nor ateratzen den ikusteko.

Azken asteetan zuen geldialdiari buruz ere hitz egin da. Zuek onartu duzue buaruari kasu eginez gero geldialdiaren bat egingo zenuketela, baina zuen helburuetako bat geldialdirik egin gabe munduari bira ematea dela ere esan duzue. Zer asmo duzue?

Lehen esan bezala, arazo pare bat

izan genituenean, gauzak bata bestearen atzetik puskatzen hasia zen gure beldurra. Gauza oso ondo doa okertzen hasten den arte. Baina, egia esanda buelta eman diogu eta orain dena ondo dagoela ematen du. Wellingtonetik gertu pasa gara, eta han bi

«Gure helburuetako bat munduari buelta gelditu gabe emateko gai garen ikustea da»

egunetan gelditzea ez da hainbeste, zeren oraindik beste berrogeita hamar egun inguru gelditzen dira. Egia esanda buruarekin pentsatuta ez litzateke txarra izango bertan gelditu eta ontziari buelta bat ematea goitik behera. Baina beno, gure helburuetako bat hasieratik munduari gelditu gabe buelta emateko gai garen ikustea da. Ez dakigu pasako den ala ez, baina ontziaren edo gure segurtasuna arriskuan ez bada ez gara geldituko. Hori da sentitzen duguna eta guk nahi duguna.

na. Lehenengo pentsatu genuen agian nahiago genuela hirugarren edo laugarren izan gelditu gabe, podiumean geldituta egon baino. Baina, orainoz bi gauzak egiten ari gara. Aurrean gaude eta gainera gelditu gabe, beraz, hobe ezin.

Zeelanda Berriaren inguruan ibili zarete orain dela gutxi arte eta orain pazifikoaren hegoalderantz zoazte. Zer moduzko egunak daukazue aurretik? Zer eguraldi espero duzue?

Zeelanda Berria atzean utzi dugu, duela egun batzuk eta beharantza goaz. Orain 50 hegoalde latitudean gaude eta hotza hasi da berriro. Pazifikoan badakigu zer den, indikoaren antzekoa. Haize dezente izango dugu, baldintza oso onak daukagu eta ontzia azkar doa. Badakigu Hornosko lurmuturrean denetatik izango dugula. Eguraldi txarrak eta ekaitza ere izango ditugu. Prestatuta egon behar da, eta orain atsedean hartzen ari gara. Ondo jaten ere ari gara, gero etorri daitezkeen egoera zailagoetarako prest egoteko.

Ekaitzek lehenengo ontziarekiko distantzia handitzea eragin dio Mapfreri

➔ Hornos lurmuturrean espero zuten bezala, ekaitz izugarriekin topatzen ari dira Xabi Fernandez eta Iker Martinez. Azken orduetan euri asko egin die eta haize bolada handiak dituzte, baina ez beraiek nahi duten norabidean. Honen ondorioz, lehenengo postuan doan Virbac Paperec ontziarekiko zuten distantzia handitu egin da, orain 79,2 miliatoko tartea dutelarik. Oso haize gutxi ekartzen duten lainoak ere arazo dira beraientzat oraintxe. 60 egun daramatate ontzian eta eguraldi hauen ondorioz, Pazifikotik irtetea zaila izan daiteke. Horregatik beraien helburua, ahalik eta azkarren joatea da ekaitzak oso osorik harrapatu ez ditzan.

Fernandezek eta Martinezek 11 urte daramatate elkarrekin nabigatzen eta hori igartzen dela diote. Bi hilabete jarraian egin dituzte nabigatzen eta honela errekor personal bat egin dute, behin ere ez baitzuten hainbeste denbora egin elkarrekin lehian nabigatzen.

Inauteriei bihar emango diete hasiera Uzturpen

11:00etatik aurrera plazan elkartuko dira ikasle guztiak, eta denek batera jaialdi bat egingo dute

Maier Ugartemendia Ibarra

Bihar hasiko dira hainbeste desiratutako Inauteriak eta Ibarrrako Uzturpe Ikastolak jaialdi handi batekin emango diete hasiera festa hauetara.

Inauteriei hasiera emateko jaialdia bihar izango da. 09:00etatik 10:30era ikastolan egingo dute festa. Gero gela bakoitzak bere mozorroa prestatzen dutenean eta denak txukun-txukun jantzita daudenean plazara jaitsiko dira musikaren doinuaren laguntzaz, saltoka. Plazan ikastolako bi urteko ikasleekin elkartuko dira. Denek batera ospakizunarekin

jarraituko dute eta festa alaitzeko hainbat gauza izango dituzte: musika, gelakako argazkiak, desfileak, buruhandiak eta abar. 11:30ean Inauterietan hain ohikoa den txistorra banatuko da hurbiltzen diren guztiei.

Euriari aurre egiteko prest

Egun berezi honetan euria egingo balu, festa Belabieta kiroldegiko frontoian ospatuko lukete Uzturpe ikastolakoek.

Antolatzailea ikastola den arren herritar guztiak gonbidatuta daude ospakizun honetan parte hartzerako. Horretarako, 11:15etik 12:00ak bitarte plazara agertu beharko da.

Honela sei egunetan zehar ospatuko diren jai zoroetan barneratzen hasteko aukera bikaina izango dute ikasle, irakasle, guraso eta herritarrek. Datozen hogeita lau orduak oso luzeak egingo zaizkio bati baina gehiagori.

Udalak balioanitzeko eraikina behin-behinean esleitu dio Antzibarri

Antzibar enpresak milioi bat eurotan murriztu du eraikina eta etxebizitzak egiteko hasierako aurrekontua

M. U. Ibarra

Atzo goizean Ibarra egin zen osoko bilkuran gai ugari aztertu eta onartu ziren. Bertan onartu zen gaietako bat balio anitzeko eraikinaren esleipenarena izan zen. Ibarrrako Udalak Antzibar enpresari behin-behinean esleitu dio balioanitzeko eraikinaren eta aldameneko orubean eraikiko diren etxebizitzak eraikuntza 4.121.072 euroren truke.

Aurrekontu hau «baldintzen pleguetan hasieran ezarritako kopurua baino milioi bat euro gutxiago da, eta epaimahaiak ondo gogoan hartu du aipatutako hobeak garrantzitsu hau». Antzibar enpresak eraikinaren mantentze kostuak murriztu eta balio estetikoak erantsi dizkieten hainbat neurri proposatu ditu eraikuntza mailan.

Epaimahaiak erabakia hartzerakoan lau garaje ireki eta bi itxi izatea ere kontutan hartu du. Eta, bereziki aintzakotzat hartu du lan hauek egiteko orduan, enpresak Ibarra eroldaturik dauden bost pertsona kontratatzeko hartu duen konpromisoa.

Erabilera anitzeko eraikin honetan kokatuko dira 15 eta 20 plaza arteko gaitasuna izango duen eguneko zentroa, gaur egun San



Atzo Ibarrrako Udalan egindako plenoan hainbat gai onartu ziren. MU

Inazio auzoan dagoen zaharren etxea, eta 18 eta 35 urte bitarteko gazteei zuzendutako alokairu sozialeko 32 apartamentu, bakoitza bere lurrazpiko garaje eta traste-tegiarekin.

Txelo Romeo Ibarrrako alkateak azpimarratu du, Behetikobiden kokatuko den azpiegitura honek «ondorio onak izango ditu Ibarrrako hiritar guztientzat, gure gizartean behar handienak dituzten gizataldeak, hau da, zaharrak eta gazteak baliabidez hornitzea suposatzen duelako».

Bestelako gaiak

Aipatu gaiak gain, beste hainbat puntu ere onartu zituzten atzoko osoko bilkuran. Horietako bat izan zen TAoren udal ordenantza epigrafe berri bat txertatzea. Honela, TAOko makinek isuna zergatik ezarri den azalduko

dute. Gai zerrendako 12. puntua Ezker Batuaren mozio baten ingurukoa izan zen. Francisca Sanchezek Ezker Batuaren izenean mozio bat aurkeztu zuen Espainiako Gobernuak erretiroaren adina atzeratze onartu berri duen legearen inguruan. «Gizarte eskubideak murrizten» dituela esan zuen. Osoko bilkuran gehiengoak mozioa onartu zuen eta abstentzio bakarra egon zen.

Gai zerrendaren 13. puntuan egun hauetan zeresan handia ematen ari den Tolosako osasun zentroaren espezialitate kontsulten jardueraren ezaren inguruan jardun zuten. Txelo Romeo alkateak Eusko Jaurlaritzari gai honen inguruko azalpenak eskatu zizkion, sistemak orain arte bezala jarraitze eta herritarrei kontsulta egiteko eskatu zuen. Mozioa onartua izan zen gehiengoz.

→ Laburrak

Korrika antolatzeko bilera kultur etxean izango da

IBARRA › Gaur, 20:00etan kultur etxean izango da 17. Korrika antolatzeko batzordea sortzeko bilera. Euskararen festa antolatzeko denen laguntza beharrezkoa da, eta batzordeak lan handia egiten du festa hau antolatzea ahal izateko.

Odol emateko aukera Ibarrrako anbulatorioan

IBARRA › Gaur, 19:00etatik 21:00etara odol emateko aukera izango da Ibarrrako anbulatorioan. Ibarrrako Odol Emaileek ibartarrak eta inguruko herrietako jendea odol ematera animatu nahi ditu, guztiok izan baitezakegu odol horren beharra. Bereziki gazteak animatu nahi dituzte odol ematera, adin talde horren parte-hartzea ezinbestekoa baita eta emaitzen kopurua ez baita handia.

Hilberriak

ESKELAK

943-65 56 95

tolosaldean@hitza.info

MARTIN IRAZUSTABARRENA ARMENDARIZ

Ez nau iluntzen baratztatikan azken loreak biltzeak muga guztien arrazoi bila arnasgabe ibiltzeak arratsaldeko argi betera zentzu denak umiltzeak amets betetzko loa baitakar behin betirako hiltzeak



Ostadar eta Aurtzaka dantza taldeak



HILETAREN BALIOA
Txina Inperiala

Funeraria Vascongada ere pertsona bakoitzak bere neurriko hileta izan behar duela. Horregatik, alor horretan lider garenaz, aukera ekonomiko guztietara egokitzen diren Hileta Zerbitzu Packak eskaintzen ditugu gure kalitatearen bermearekin.

Berreskurazina da galdu duzuna, baina laguntza eskainiko dizugu dena erazagoa izan dadin.

FUNERARIA VASCONGADA
EHORZKETAK

902 402 900

www.funerariavascongada.com



GOIZA	LAINOTUTA
ARRATSALDEA	LAINOTUTA
BEROENA	10°
HOTZENA	3°

Argitaratzailea: Tolosa Herria Hedabideak S.L.
Lege Gordailua: SS-0398-03
Zuzendaria: Rebeka Calvo
Egoitza nagusia: Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.
Telefonoa: 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18
Leitza: Herriko plaza, 1. 687 410 118
E-posta: tolosaldean@hitza.info
Webgunea: www.tolosaldea.hitza.info

Zuzendariordea: Asier Imaz. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.
Publizitate: 661 678 818 tolosa@iragarri.net.
Tolosa: 687 410 082-687 410 032. tolosa@hitza.info.
Villabona: 687 410 022. villabona-aiztondo@hitza.info.
Anoeta/Aldea: 687 410 022. anoetaldea@hitza.info.
Ibarraldea: 687 410 118. ibarraldea@hitza.info.
Alegialdea: 687 410 034. alegialdea@hitza.info.
Leitzaldea: 687 410 118. leitzaldea@hitza.info.

Tolosa Herria Hedabideak S.L.ko kideak:



eta Tolosaldeko eta Leitzaldeko beste 77 eragile

Hitza-k Bai Euskarari



'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak: Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Ametzeta, Anoeta, Areso, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Elduain, Gaztelu, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Leaburu, Leitza, Lizartza, Oresa, Tolosa, Villabona, Zizurkil

Gipuzkoako Foru Aldundia

Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): 902 82 02 01

Irudia Berastegi



IAZ JAIOTAKO HAURREK BADUTE ZUHAITZ PROPIOA

Badira mantendu beharreko ohiturak, eta horietako bat da Zuhaitz Eguna antolatzearena. Berastegin ere urtero duten hitzordua da, eta pasa den igandean ospatu zuten. Aurtengoan, hala ere, bazen berrikuntzarik, izan ere

iaz jaiotako haur bakoitzaren izenean zuhaitz bat landatu zuten, hemezortzi, zehazki. Bi eremutan aritu ziren lanean igandean: Beibatarin eta *Berastegiarren sustriak* bezala batailatutakoan, Salontzoren magalean

dagoen eremuan, alegia. Ondoren, txori habiak ere jarri zituzten zuhaitzetan. Lan guztiak amaitu eta gero Gorosmendiko txabolaren elkartu ziren guztiak hamaiketako egiteko. HITZA

Agurrak

AGURRAK
943-65 56 95 tolosaldean@hitza.info

agurrak

Agenda

ANTZERKIA

■ **Villabona.** Martxoak 4ean, ostirala, 22:30ean *Xentimorik Gabeantzez* lana Gurea antzokian. Sarrera 8 euro.

DEIALDIAK

■ **Aduna.** Asvineneak antolatzen duen V. Poltsiko Lehiaketan izena emateko epea martxoaren 18an amaituko da.

Edozein kontsultarako deitu 665 738 081 telefono zenbakira edota idatzi poltsiko.lehiaketa@gmail.com helbidera.

OHARRA

■ **Tolosa.** Bihartik martxoaren 9a bitarte (biak barne) Usabal kirodegia itxita egongo da. Bertako arduradunek Villabonako Olaederra kirodegira joateko eskatu diete erabiltzaileei.

Farmaziak

GAUR

■ **Tolosa.** Olarreaga, I. Korreo kalea, 2. 943 67 01 28.
■ **Betelu.** Carrillo, A. Kale Nagusia, 5. 112.
■ **Irurtzun.** Mutiloa, A. M. San Martin, 5. 112.

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

TOLOSALDEKO **hitza** info
bertako egunkaria
egin zaitez harpidedun!
902-82 02 01
(Astegunetan 08:30-20:30 /Larunbatetan: 09:00-13:00)
www.tolosaldea.hitza.info
www.leitzaldea.hitza.info
eraman/bidaliz izen-emate orria:
Araba etorbidea 5 behea, atzea - 20400 Tolosa

beharezkoa da datu guztiak betetzea

•Izen-abizenak: _____

•NA: _____

•Lanbidea: _____

•Jaioteguna: _____

•Helbidea: _____

•Herria: _____

•P.K.: _____

•Tel.: _____

•Posta elektronikoa: _____

•Kontu zenbakia: